BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

1981

EBAZPENA, 2014ko otsailaren 27koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren Bizkaiko lurralde-ordezkariarena, zeinen bidez deialdia egiten baita zehaztutako finkak okupatu aurretiko aktak jasotzeko; finkok Mallabia-Mallabia izeneko 1. eta 2. Zirkuituko 13,2 kV-ko aireko linea elektrikoaren zortasuna zabaltzeko proiektuaren eraginpean daude, Mallabia, Ermua, Zaldibar eta Ziortza-Bolibarko udalerrietan (linea elektriko hori Iberdrola Distribución Eléctrica, S.A.ren jabetzakoa da).

Erref.: L-7976 ASS-TLE.

Esp.: AT-H-2013-032.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariaren 2013ko urriaren 24ko Ebazpenaren bidez, aipatu instalazio elektrikoa herritarrentzat onuragarria dela deklaratu zen.

Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legearen 54. artikuluan xedatutakoaren arabera, onura publikoko deklaratzeak berekin dakar: eraginpeko eskubideak eskuratzea edo ondasunak okupatu beharra, eta, ondorioz, okupazioa premiaz egin beharra, betiere Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan zehaztutako ondorioetako.

Ondorioz, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen (1954ko abenduaren 17ko BOE) 52. artikuluarekin bat, lurralde-ordezkaritza honek erabaki du eragindako eskubideen jabeei eta titularrei deitzea, Mallabiko udaletxera; izan ere, bertan daude eragindako ondasunak. Bertan, burutuko dira eraginpeko ondasunak okupatu aurretiko aktak, eta, beharrezkoa bada, behin betiko okupazioarena.

Eraginpeko ondasunetan edozein eratako eskubideak edo interesak dituzten pertsona titularrak eta horretan bestelako interesik duten gainerako pertsona guztiak ere joan daitezke bilerara, bai zuzenean, eurak joanda, bai zeharka, euren ordez dagokion baimenarekin besteren bat bidalita; era batera zein bestera, titulartasuna egiaztatzeko agiriak eraman beharko dituzte, baita kontribuzioko azken ordainagiria ere. Hala nahi izanez gero, peritu edo notario batek lagunduta ere joan daitezke.

Honekin batera doan zerrendan aditzera emandako egun eta orduan jasoko dira aktak, eta hori zitazio zedularen bitartez emango zaio jakitera titular bakoitzari, non lekua, eguna eta ordua adieraziko baitira. Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan ezarritako argitalpenak ere egingo dira.

Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen Araudiko 56.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriaz, bai interesdunek bai argitaratutako zerrendetan aipatu ez diren interes errealen eta interes ekonomikoen titularrek nahi adina alegazio aurkez ditzakete, eraginpeko ondasun eta eskubideen zerrendetan egindako akatsak zuzentzeko, hain justu ere idazki baten bitartez Bilboko lurralde-bulegoan (Concha kalea 23-5.a), aldez aurretiko aktak jasotzeko izendatutako egunera arte.

Halaber, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.4 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta Nahitaezko desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluko bigarren arauan aurreikusitakoaren arabera, iragarki honek ondoko hauei jakinarazpena egiteko balioko du: identifikatu gabeko interesdun posibleei, eraginpeko ondasun eta interesen titular ezezagunei eta helbide ezezaguna dutenei.

Bilbao, 2014ko otsailaren 27a.

Bizkaiko lurralde-ordezkaria,
ADOLFO GONZÁLEZ BERRUETE.

ALDEZ AURRETIKO AKTETARAKO ZITAZIOA

Mallabia-Mallabia (1. zirkuitua) 13,2 kV-ko aireko linea

Erref: L-7976 AT-H-2013-32 ASS-TLE

MALLABIKO UDALA

Lur-saila (proiektuaren arabera)	Katastroko datuak			Titularra	Hilabetea	Eguna	Ordua	Udala
	Poligonoa	Lursaila	Izaera/ Laborantza					
26	1	3	Hiri-finka	Delgado Lardizabal, Gabriel	Maiatza	26	09:00	Mallabia
68	8	61	Landa-finka	Berrizbeitia Zabala, Ramon	Maiatza	26	09:30	Mallabia
60	8	90	Landa-finka	Garitaonandia Alcibar, Juan	Maiatza	26	10:00	Mallabia
61	8	81	Landa-finka					
63	8	72	Landa-finka					
66	8	78	Landa-finka					